



NORK: LANGILEEN ETA TALENTUAREN ZUZENDARITZA

NORI: ZERBITZU-ERAKUNDEETAKO LANGILEEN ZUZENDARITZAK

Gaia: 2023-2024-2025 EPE baimenak

2023-2024-2025 aldirako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren azterketak 2026ko ekainean egingo dira, eta, aurreikusten denaren arabera, Osakidetza hainbat erakundeko zerbitzuetako langileak aurkeztuko dira. Langile horiek irizpide bateratuen arabera parte har dezaten errazteko, zera jakinarazten da, interesdunek ondoren adierazten diren baimenak izateko eskubidea izango dutela, bakoitzaren laneko ordutegiaren eta azterketa egiten den ordutegiaren arabera.

Lehena. - 2023-2024-2025 EPEko azterketak egiteko baimena soilik emango da baldin eta egin beharreko proba gaur egun Osakidetza zerbitzua ematen ari den kategoria/lanpostu funtzionala lortzeko bada.

Bigarrena. - Lan Eskaintza Publiko horretan barne-sustapeneko txandan izena eman duten eta horretarako deitutako probetan parte hartzen duten Osakidetza langile finkoek ere baimen hori izango dute.

Langile bat kategoria/lanpostu funtzional batera baino gehiagora sartzeko probetara aurkeztu bada barne-sustapeneko txandan, kategoria/lanpostu funtzional bakarrari dagozkion probetan soilik aplikatuko zaio berreskuratutako baimen hori.

Hirugarrena. - Prestakuntza sanitario espezializatuan dauden langile egoiliarrei ere kategoria/lanpostu funtzional bakar batean aplikatuko zaie baimena.

Laugarrena. - Oro har, Osakidetza 2023-2024 2025 EPEko azterketetara joateko baimenaren iraupena honela zehaztuko da:

AZTERKETA	TXANDA	BAIMENA
GOIZEZ (Hasiera ordua 9:00-10:00 bitartean)	GAUA EGIN OSTEAN	3 ORDU
GOIZEZ	GOIZEZ	7 ORDU
GOIZEZ (Hasiera ordua 9:00-10:00 bitartean)	ARRATSALDEZ	2 ORDU
GOIZEZ (Hasiera ordua 13:00-14:00 bitartean)	ARRATSALDEZ	5 ORDU
ARRATSALDEZ	GOIZEZ	2 ORDU
ARRATSALDEZ	ARRATSALDEZ	7 ORDU
ARRATSALDEZ	GAUA EGIN AURRETIK	2 ORDU

AZTERKETA	TXANDA	BAIMENA
GOIZEZ (Hasiera ordua 9:00-14:00 bitartean)	LANALDI ZATITUA (9:00etatik - 14:00etara eta 15:00etatik 17:00etara)	7 ORDU
ARRATSALDEZ (Hasiera ordua 15:00etatik aurrera)	LANALDI ZATITUA (9:00etatik - 14:00etara eta 15:00etatik 17:00etara)	5 ORDU (12:00etatik aurrera)



Bosgarrena. - 12 orduko zerbitzua (8:00etatik 20:00etara edo 9:00etatik 21:00etara) ematen duten langileek gaur egun betetzen duten kategoriara sartzeko deitzen diren probetara aurkezten badira, baimen bat izango dute, eta baimen hori berreskuratutzat joko da dagozkion ondorioetarako, honako irizpide hauen arabera:

AZTERKETA	BAIMENA
GOIZEZ (<i>Hasiera ordua 9:00-10:00 bitartean</i>)	Sarrera-ordua 16:00etan
GOIZEZ (<i>Hasiera ordua 13:00-14:00 bitartean</i>)	Irteera-ordua 11:00etan
ARRATSALDEZ (<i>Hasiera ordua 17:00-18:00 bitartean</i>)	Irteera-ordua 13:00etan

Seigarrena. - Proba egiten den egunean Etengabeko Arretako Guneetan (EAG) zerbitzuak eman behar dituzten langileek izango duten baimena berreskuratutzat joko da dagozkion ondorioetarako, irizpide hauen arabera:

AZTERKETA	BAIMENA
GOIZEZ (<i>Hasiera ordua 9:00-10:00 bitartean</i>)	Sarrera-ordua 17:00etan
GOIZEZ (<i>Hasiera ordua 13:00-14:00 bitartean</i>)	Sarrera-ordua 19:00etan
ARRATSALDEZ (<i>Hasiera ordua 17:00-18:00 bitartean</i>)	Sarrera-ordua 22:00etan

Gaua egin ondorengo EAGko langileek irteera-ordua hiru ordu aurreratu ahal izango dute probaren eguneko goizean.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko maiatzaren 5ean

 **Osakidetza**



Josune Retegi Ormazabal
LANGILEEN ETA TALENTUAREN ZUZENDARIA